

# GURE PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Erabakitzea asko kostatu zitzaigun arren, azkenean egingarria den zerbait egitea lortu dugu denon ekarpenak kontuan hartuz. Gure ideia, pertsiana “automatikoak” sortzea izango litzateke, argi sentsore nahiz mugikorreko aplikazio nahiz urrutiko kontroleko agintearekin kontrola daitezkeenak.

Aipatu berri dugun ideia hau, dagoeneko asmatua dagoen arren, guk berritzea pentsatu dugu. Izan ere, jendea etxean ez dagoen bitartean, dela oporretara joan delako, lanean dagoelako edo dena delakoa, pertsianak gora eta behera automatikoki egitea onuragarria iruditu zitzaigun. Modu honetan, programazioaren bitartez, pertsiana zenbait egoera desberdinetan igo edo jaitsi egingo da. Horrela, jendea oporretara joaten denean, arazoetako bat izaten denez pertsianak nola utzi lapurrak susma ez dezaten etxean ez zaudela, metodo honekin hori dena saihestuko genuke. Gainera, hasieran aipatu dugun bezala, ingurumenarekin zer ikusia zuen zerbait egitea zen gure lehen ideia. Azken finean, egungo gizartean behar handia dagoelako. Hortaz, nahiz eta ondoren ideia alde batera utzi, jabetu ginen pertsianak programazioaren bitartez funtzionatzeko motorra behar zuela. Beraz, pentsatu genuen programazio horrek modu ohikoan funtzionatu dezakeela, edo baita eguzki plaken bitartez ere, hauek motorraren bateriara konektatuz. Horren erabakia, bezeroen edo enpresen esku geratuko litzateke.

Talde moduan, taldeko balorazio orokorra egin genuenean aipatu bezala, trebetasun soziala da geure ehunekorik altuena. Azken batean, proiektu hau burututa, gure helburu nagusia bezeroaren ongizate maila handitzea da, eta gainera, gure kasuan, eguzki plakak erabiliz gero, ingurumenean ere lagunduko genuke.

Brainstorming-aren **lehenengo faseari** dagokionez, hasiera batean, argi izan genuen ingurumenarekin zer ikusia izango zuen zerbait egin nahi genuela. Izan ere, gure gaur egungo gizartean beharrezkoa ikusten dugu ingurumenari nola ahala laguntzea, etengabe kutsatzen baitugu. Hori horrela, denborak aurrera egin ahala, hainbat ideia etorri zitzaizkigun burura, baina, horietako bat bera ere ez zen gure jakinduria soilarekin gauzatzeko modukoa.

Ideietako bat; ibaietan zaborra bilduko zuten presa sistema konplexu batzuk eraikitzea izan zen, itsaso zabaletik zaborra biltzen hastea gehiegi iruditu zitzaigulako. Beraz, ibaietatik hasi ginen konponbide bila. Bestalde, mendiko motxila batean eguzki plakak jartzea bururatu zitzaigun, mendira edo hobeto esanda, teknologia eskuragarri ez dugun lekuetara joateko orduan, korrante elektrikoa izan dezagun. Azkar jabetu ginen, honako ideia hau nahiko garatua zegoela *National Geographic*-en eskutik. Bestetik, ideia ona eta berritzailea iruditu zitzaigun ibiltzen

zoazen heinean, mugikorra kargatzen joatea. Ideia oso erabilgarria eta denontzat aproposa den arren, ez genekien nola gauzatu zitekeen. Ideia honi beste buelta bat emanda, mugikorraren zorroan eguzki plaka bat jartzea otu zitzaigun. Honako hau ere, besteen antzera, ez genekien nola bideratu.

**Bigarren faseari** dagokionez, ingurumenaren bide hori alde batera uztea erabaki genuen, horrekin zer ikusia zuten ideiak bideraezinak zirelako guretzat. Jarraian, ideien eremua erabat zabaldu genuen, zerbait hobea bururatuko zitzaigulakoan, baina ez zen horren erraza izan. Alde batetik kotxeentzat freno elektriko batzuk asmatzea bururatu zitzaigun, gaur egun dituzten frenoak mekanikoak direla eta, botatzen duten olioia (erregaia) kutsakorra delako. Beste aldetik, etxe guztietan aplikatu zitekeen iris detektore moduko bat egin nahi genuen, erabilera berdina emanez, hau da, atea irekitzekoa, baina atera beste modu batera aplikatuz, eta dirudunak ez diren jendeari produktu hau eskuragarriagoa eginaz. Baina beranduago, egun batzuen buruan pertsianen ideia bat etorri zitzaigun burura. Hala nola, pertsianak automatikoki igo eta jaitsiko ziren, programazio bati esker. Programazio bat baino gehiago egongo liratekeela kontuan hartuz, bezeroak nahi duena programatu ahalko luke, pertsianak sentsoreen bidez, urrutiko kontroleko aginte edo mugikorraren bitartez igo eta jaistea.

**Hirugarren fasean** ideia definitiboa hautatu behar dela eta, irisa detektatzen duen "giltza"-rena baztertzea erabaki genuen, nahiz eta egitea posiblea den, oso zaila delako eta lan handia dakarrelako. Gainera, ez dakigu produktu hau nahi bezain merkea izatera iritsiko litzatekeen, eta horrek jende guztiak eskuragarri izatea eragotziko luke. Bestetik, freno elektrikoarena seguru jendeak honen inguruan interesa edukiko lukeela, gutxiago kutsatzen baitu, baina aldi berean, ez dakigu guztiz segurua izango litzatekeen, eta horrek pertsonen bizia jokoan jartzen duela kontuan hartuta, hobe egingo ez bagenu. Beraz, pertsianen ideia erabaki dugu, hasieran nahi genuen bezala, energia berriztagarriak erabiltzen dituelako ingurunea gutxiago kutsatu dadin, eta produktu honek eskaintzen dituen aukera zabalak kontuan hartuz, erraz salduko litzatekeela pentsatzen dugulako.

Esan bezala, gure enpresa ideia pertsiana automatizatuak sortzea litzake, eguzki plaka eta argi sentsoreak erabiliaz. Hau burutzeko, panel automatizatuak instalatuko dituen enpresa bat beharko genuke, eta baita beharrezko material guztiak lortzeko subkontratazioak. Horrez gain, hau instalatzeko, langileak.

Aitor Aiestaran  
Ander Barkin  
Maialen Etxebeste  
Miren Garmendia